

HERRITARREN ELKARBIZITZA ETA BIDE PUBLIKOAREN ERABILERA NAHIZ GARBIKETA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA

HITZAURREA

Ordenantza honen helburua da espazio publikoa elkarbizitzako eta gizalegezko toki izan dadila bermatzea, udalerrian dauden pertsonak bakean, askatasunean eta eskubide zein betebeharrak berdintasunean jardun dezaten. Hori guztia, elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarrituta, herritarren talde bizitzaren kalitatea hobetzeko asmoarekin. Izan ere, espazio publikoak osatzen dituzten ondasun eta instalazioen erabileran herritar guztiak gizalegez jarduteko betebeharrak duten arren, badira jarrera arduragabea duten pertsonak, eta jarrera horiek, zuzenean edo zeharka, herritar guztiei eragiten die.

Hortaz, Ordenantzak udalerrian dauden pertsonen jokabideak eta jarrerak elkarbizitzaren gutxieneko estandarretara egokitzeko eta elkarbizitzari eragin diezaioketen egoera eta gorabeherei aurre egiteko tresna eraginkorra izan nahi du, eta horiei erantzun orekatua emateko asmoa du. Aintzat hartuta espazio publikoetan guztiak askatasunean errespetatuak izateko eskubidea, baina baita bizikidetzako betebeharrak ere.

Horrela, adierazitako beharrari erantzuteko, herritarren bizikidetzak eta lasaitasuna errespetatzeko eta ondasun eta zerbitzu publikoak haien erabileraren eta xedearen arabera erabiltzeko betebeharrak orokorra ezartzen du eta espazio publikoan pertsonen duintasuna gutxiesteko jokabide oro debekatzen du. Gainera, espazio publikoaren erabilera desegokia arautzen du (herri altzarien eta espazio publikoaren erabilera, parke eta lorategi publikoaren erabilera eta espazio publikoaren garbiketa), baita herritarren bizikidetzak eragozten duten beste jokabide batzuk ere (segurtasunari, industria eta merkataritzari, jabekideen ardurei, zaratari eta animaliei dagokienez), obrak gauzatzeko garaian bete beharreko arauak ezartzen ditu, bide publikoaren okupazioa arautzen du, eta zigor erregimena zehazten du.

Finean, Ordenantza honekin herritarrek portaera desegokien aurrean duten kezka erantzun nahi zaio, herritar edo talde arau-hausleentzat disuasio-tresna izateaz gain, eta erantzukizunez eta gizalegez jokatzeko deia egin nahi da.

Beti ere, ordenamendu juridikoarekiko koherentzia mantenduz, Konstituzioak eta legeek araututakoa errespetatuz eta beste Administrazio Publiko batzuen eskumenei kalterik egin gabe.

Horregatik guztiagatik, elkarbizitza eta bide publikoaren erabilera nahiz garbiketa arautzen duen udal ordenantza hau egin da, honako kapitulu hauetan banatuta:

I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1 artikulua.- Xedea.

Ordenantza honek elkarbizitza arauak ezartzea du oinarrizko xede eta baita haiek bakean, askatasunean eta eskubide zein betebeharrak berdintasunean bete daitezela zaintzea ere.

Helburu hori lortzeko, Ordenantza honek elkartasunean eta elkarrekiko errespetuan oinarritutako herritarren talde bizitza arautzeko xedapenak ematen ditu.

2. artikulua.- Aplikazio eremua.

1. Ordenantza hau Lezoko udalerrira osoan aplikatuko da, eta herritar zein bisitari guztiak betetzeko da.
2. Araudi honen ondorioetarako udalaren herri bideen inbentarioan bildutakoak hartuko dira bide publikotzat

3. artikulua.- Herritarren betebeharrak orokorra.

1. Herritarren bizikidetza eta herritarren lasaitasuna errespetatzeko betebeharra dute. Era berean, behartuta daude ondasun eta zerbitzu publikoak haien erabileraren eta xedearen arabera erabiltzera.
2. Ordenantzaren edukia ez ezagutzeak ez du ordenantza honen xedapenak ez betetzea baimenduko

4. artikulua.- Berariazko debekuak.

1. Espazio publikoan debekatuta dago pertsonen duintasuna gutxieteko jokabide oro, bai eta eduki xenofoboa, arrazista, sexista edo homofoboa duen, edo beste edozein egoera edo zirkunstantzia pertsonal edo soziala dela eta egindako diskriminazio-jokabide oro ere, izatez, idatziz edo hitzez, irainen, iseken, nahita eragindako eragozpenen, hertsapen psikiko edo fisikoaren bidez. Paragrafo honetan deskribatutako jokabideak, egoki denean erantzukizun penal edo zibilak eskatzearen kalterik gabe, arau-haustetzat hartuko dira. Zehatz-mehatz arau-hauste arintzat hartuko dira izatez, idatziz edo hitzez egindako irainak, isekak eta nahita eragindako eragozpenak. Hertsapen psikiko eta fisikoak berriz, arau hauste larriak izango dira.
2. Arestian deskribatutako jokabideak adineko pertsonen, adingabeen eta mugak edo zailtasun funtzionalen bat duten pertsonen aurka egiten direnean arau-hauste larritzat hartuko dira izatez, idatziz edo hitzez egindako irainak, isekak eta nahita eragindako eragozpenak, eta arau hauste larritzat hertsapen psikiko nahiz fisikoak.

III KAPITULUA ESPAZIO PUBLIKOAREN ERABILERA DESEGOKIA

5. artikulua.- Herri altzariak eta espazio publikoen erabilera.

1. Herrian dauden herri altzariak egoki eta behar bezala erabiltzeko obligazioa dute herritar guztiek. Altzariak errespetatu egin behar dira, ongi kontserbatzeko eta normal erabiltzeko moduan egon daitezen.
2. Debekatuta dago herri altzariak eta espazio publikoak modu desegokian erabiltzea, nahiz hauek hondatzen dituzten edo honda ditzaketen ekintzak egitea, eta, bereziki, honako ekintza hauek:
 - a) Eserlekuak beren erabilera naturalaren aurka erabiltzea; ezin dira dauden lekuetatik kendu, ez hautsi, ez zikindu eta, oro har, ezin da haien erabilera kaltetu edo kontserbazioa hondatuko duen ezer egin.
 - b) Parkeetako jokorako tresnak modu txarrean eta kaltetu edo hausteko moduan erabiltzea. Haurrentzako jokoak ezin dituzte erabili ez helduek ez eta, adin txikikoak izan arren, jokoan bertan adierazita datorren adina gaintzen dutenek ere.
 - c) Paperontziak irauli edo beren tokietatik ateratzea, eta baita haien itxura eta osotasuna honda dezaketen beste ekintza guztiak ere.
 - d) Iturri publikoetako hodiak, kanilak eta gainerako elementuak manipulatzeko haien funtzionamendu normaletik kanpo.
 - e) Herrian dauden zuhaitz zein beste landare, farola, eskultura eta gainerako apaingarriak kaltetuko dituen edozein ekintza edo manipulazio, eta baita elementu horiek hondatzen dituzten ekintzak ere.
 - f) Sua eta ekintza piroteknikoak egitea udalaren eta alor horretan eskumena duten administrazioen derrigorrezko baimenik gabe.
 - g) Iturri, ibai, erreka edo urmaletan eta bide publikoan substantziak botatzea.
 - h) Bide publikoan petardoak edo bengalak erabiltzea, eta edozein motatako objektuak jaurtikitzen dituzten tresna edo gailuak erabiltzea, esate baterako, arkuak, zerbatanak, tiragomak eta bolak botatzen dituzten pistolak.
 - i) 4. artikuluan adierazi diren helbururik gabe baina ordena publikoa nahasi dezaketen ekintzak egitea, hala nola borrokan, irainka eta burlaka ibiltzea.
 - j) Oinezkoentzako plazetan eta espaloietan motozikleta, ziklomotor, patinete elektrikoak edo beste edozein motordun ibilgailuan ibiltzea, gurpildun motordun aulkiak izan ezik.

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintza bakoitza arau-hauste arintzat hartuko da. Edozein kasutan, herri altzariek

nahiz espazio publikoak jasandako kaltearen zenbatekoa 10.000 eurotik gorakoa denean arau-hauste larritzat hartuko dira.

6. artikulua.- Parke eta lorategi publikoak.

1. Herritarrek herriko parke eta lorategi publikoak errespetatzeko obligazioa dute.
2. Parke, lorategi, parterre eta loreontzietako eta bide publikoan aldatutako landare espezie desberdinak (zuhaitzak, zuhaixkak, belarkiak eta garaiko landareak) ongi kontserbatu eta mantendu ahal izateko, debekatuta dago honako ekintza hauek egitea:
 - a) Landareak lapurtzea (zuhaitzak, zuhaixkak, belarkiak eta garaiko landareak).
 - b) Soropila eta landareak hondatzea edo bertan kanpatzea.
 - c) Zuhaitzak zein zuhaixkak bota, inausi eta haustea edo haietara igotzea.
 - d) Zuhaitzen azaletan gauzak idatzi edo margotzea, punta zorrotzak sartzea, zuhaitz horiei eskaierak edo tresnak eta aldamioren euskarriak lotzea eta kartelak jartzea. Halaber, debekatuta dago konpainiako animaliek landaretza haustea.
 - e) Aldi baterako bada ere, obra materialak zuhaitzetan pilatzea eta haietan edozein produktu toxiko isurtzea. Berdeguneetan materialak pilatu (aldamia jarri...) behar izanez gero, baimena eskatu beharko da eta, ondoren, haiek lehen zeuden bezala utzi.
 - f) Berdeguneetan, haiek hondatzeko edo duten estetika eta erabilera ona kaltetzeko moduko zaborrak, hondakinak, harriak, legarra edo beste edozein produktu botatzea.
 - g) Udal baimenik gabe, parke eta lorategietan sua piztea.
 - h) Bizikleta, motor edo ziklomotoretan ibiltzea, hartarako egokitu gabe edo zoleztatu gabe dauden guneeetatik kanpo.
 - i) Ibilgailuak aparkatzea.

Araudi honen VII. Kapituluan xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintzen artean, a, b, c, d, h eta i hizkietan jaso direnak arau-hauste arintzat hartuko dira. E, f eta g hizkietan jaso diren ekintzak berriz, arau-hauste oso larritzat hartuko dira.

7. artikulua.-Espazio publikoaren garbiketa.

1. Herritar guztiek dute, oro har, herria eta, bereziki, espazio publikoak garbi mantentzeko betebeharra.
2. Irudizko nahiz idatzizko adierazpenak (graffitiak, marrazkiak, idatziak, pintadak, etab.) udalak eskatuta edo interesdunak aldeztatik eskatuta eta dagokion udal-baimenarekin egingo dira.
3. Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egitean zikindutako espaloi eta galtzadak berehala garbituko dira, lan horiek bukatu bezain laster. Garbiketa horiek egiteko obligazioa dute ibilgailuen jabeek eta, subsidiarioki, karga edo deskarga egin den establezimendu edo finkaren titularrek.
4. Erabilera arrunt berezi eta pribatiboaren ondorioz bide publikoa zikintzen bada, erabilera horien baimena duten edo esleipendunak diren pertsona fisiko edo juridikoen erantzukizuna izango da. Sortzen dituzten hondakinak bota edo edukitzeko ontzi homologatuak jartzeko eskatu ahal izango die Udalak, eta ontzi horiek garbitu ere egin beharko dituzte.
5. Aurreko zenbakiari dagokionez, Udalak bestelakorik adierazi ezean, jabetza publikoko espazioetan egindako ekitaldi baten antolatzaile pribatuak izango dira ekitaldia egitearen ondoriozko zikinkeriararen erantzule. Udalak ekitaldia baimentzeko hartzen duen erabakian zehaztuko du garbiketaren ardura norena den. Antolatzaileak behartuta daude Udalarik ekitaldi publikoen lekuaren, ibilbidearen eta ordutegiaren berri ematera. Udalak ekitaldiak burutzeko udal-lizentzia eskatu ahal izango die.
6. Debekatuta dago bide publikoa eta espazio publikoak zikin ditzaketan edozein jardura egitea, eta bereziki, honako ekintza hauek:
 - a) Bide publikoan zaborrak, pipak, fruitu lehorren edo antzekoen azalak, txikleak edo paperak zeregin horretarako dauden paperontzietatik kanpo botatzea. Halaber, edalontziak, botilak,

- botila txikiak eta freskagarrien ontziak uztea.
- b) Bide publikoan ibilgailuak garbitzea, ibilgailuak konpontzea edota motorraren olioaldatzea edo bide publikoa zikin dezakeen edozein motatako isurkari manipulazioa.
 - c) Bide publikoan kaka eta/edo pixa egitea.
 - d) Irudizko nahiz idatzizko adierazpenak (graffitiak, marrazkiak, idatziak, pintadak, etab.) dagokion udal-baimenik gabea egitea.
 - e) Ezinbestean bide publikoa zikintzea eta ez garbitzea, bereziki,
 - ea) Edozein ibilgailuren karga eta deskargak egitean zikindutako espaloietan eta galtzadak berehala lan horiek bukatu bezain laster ez garbitzea.
 - eb) Erabilera arrunt berezi eta pribatiboaren ondorioz (ekitaldi baten ondoren izan ala ez).

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintza bakoitza arau-hauste arintzat hartuko da.

Egin beharreko garbiketa inplikaturako jabe edota titularrek egiten ez badute, udal zerbitzuek egingo dute, baina gastuak haiek ordainduko dituzte.

IV KAPITULUA HERRITARREN BIZIKIDETZA ERAGOZTEN DUTEN BESTE JOKABIDE BATZUK

8. artikulua.-Segurtasuna.

Segurtasun arrazoiengatik, Udalak baimendutako jendetza handia biltzen duten ikuskizunetan, izaera bereziko ekitaldietan edota bestelako ekintza oso jendetsuetan, plastikozko edalontziak erabiliko dira. Ezingo da inola ere kristal edo beirazko ontzirik erabili, ez eta kristalezko botilak, latak edo antzekorik ere.

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintza arau-hauste larritzat hartuko da.

9. artikulua.-Industria eta merkataritza.

1. Generoa soltean edo edozein materia ontziratuta gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik ez egiteko moduan kargatu eta ekipatuko dira.
2. Industria edo merkataritza jardura batek bere inguruetan, edo terrazen kasuan, baimendutako gunean, zikinkeria sortu ohi badu, establezimenduko titularrak garbi eduki beharko du zikindutako bide publikoaren zatia, dagozkien lizentziei aplikatu beharreko erregimenetik etor daitezkeen neurri zuzentzaile eta gainerako betebeharrei kalterik egin gabe.
3. Terraza eta mahaien garbiketari dagokionez, titularrek egin beharko dute ordubeteko epean, establezimendua ixten den unetik aurrera kontatuta. Horrela, altzariak jaso egin beharko dituzte eta eremua garbi-garbi utzi beharko dute. Dena dela, egun osoan garbi eduki beharko dira, garbiketa eta higiene baldintza egokietan, eta, horretarako, erratza pasako da eta garbiketa lanak egingo dira aldian behin. Terrazen kudeaketa hondakinak ez sortzeko moduan egingo da.
4. Merkataritza lokalen jabeek, bertan jardura izan edo ez, beren fatxadak egokituko dituzte eraikinaren apaindura, mantentze eta ezaugarrietara, xede horretan zehaztutako zehaztapenen arabera.
5. Erakusleho, establezimendu, salmenta puntu eta antzekoen garbiketa kontu handiz egingo da, bide publikoa ez zikintzeko moduan; eta bertan dabilzanean eragozpenik ez sortzeko orduetan egingo da.
6. Orube, lur eta lokal komertzialen jabeek zabor eta hondakinik gabe eduki beharko dituzte horiek, eta beharreko osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publiko baldintzetan. Era berean, arratoiak eta intsektuak hilko dituzte horretarako baimena duen enpresa baten bidez.

7. Beheko solairuetako lokaletako toldoak eta pertsianak kontserbazio eta garbiketa egoera onean mantenduko dira.
8. Edozein errotulu, plaka edo bereizgarri bide publiko aldera jartzeko, beharrezko lizentzia lortu beharko da. Horiek garbi edukiko dira eta hondatuak aldatu egingo dira.
9. Industriari eta markataritzak bide publikoan duen eragina ahalik eta txikiena izan dadin, bereziki honako ekintzak debekatuta daude:
 - a) Generoa soltean edo edozein materia ontziratu gabe garraiatzen duten ibilgailuak bide publikora isurketarik egitea.
 - b) Merkataritza lokalen inguruak, terrazak, terrazako mahaiak, fatxadak, erakusleiho, establezimendu eta salmenta puntuak, toldoak eta pertsianak, errotulu, plaka eta bereizgarriak atal honetan arautzen den moduan ez garbitzea, mantentzea edo egokitzea.
 - c) Orube, lur eta lokal komertzialen inguruan sortzen den zabor eta hondakinik ez jasotzea.
 - d) Orube, lur eta lokal komertzialen beharrek osasun, higiene, segurtasun eta apaindura publiko baldintzetan ez mantentzea. eta arratoiak eta intsektuen aurkako neurriak ez hartzea hala dagokienean.

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintzen artean, a, b, eta c hizkietan jaso direnak arau-hauste arintzat hartuko dira. D hizkian jaso den ekintza berriz, arau-hauste larritzat hartuko da.

Egin beharrek garbiketa inplikaturako jabe edota titularrek egiten ez badute, udal zerbitzuek egingo dute, baina gastuak haiek ordainduko dituzte.

10. artikulua.-Jabekideen ardurak.

1. Espazio pribatuen garbiketa jabeek dagokie: barne patioak, orube partikularrak, igarobideak, lorategiak, etab. Garbiketaren egoeraren kontrola Udalak egingo du.
2. Edozein hirigintza jarduketan prozesuan diren eraikin hondatuak behar den bezala itxita edo hesituta egongo dira, bertara haiekin zerikusirik ez duen edonor sar ez dadin.
3. Alarma sistema duen edo jartzeko asmoa duen herritar zein enpresa edo komertzio arduradun oro behartuta dago alarma-zentral batekin konektatzera, eta Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak zehaztutako protokoloari jarraitu beharko dio.
4. Finka eta eraikinen jabeek haien elementuen apaindura publikoa gordetzeko obligazioa dute. Fatxaden, sarreren eta, oro har, higiezinak dituen eta bide publikotik ikusten diren arkitektura elementuen zein higiezin osagarrien (antenak, tximiniak...) garbiketa eta mantentze lana egin beharko dituzte.
5. Loreontziak edo landareak bide publikora urik bota gabe ureztatuko dira, eta, isurketa saihesteko, ur soberakina jasotzeko ontzia jarriko da.
6. Landa eremuko lursailen jabeek segurtasun, osasun, begirune eta apaindura publikoa gordetzeko eginbeharra dute haien lursailetan. Jabeen ardura izango da bertako hondakin pilaketak jasotzea, landaretzak ondoko lursailak ez kaltetzea eta behar diren mantenu lanak egitea.
7. Jabekideek dagokienez, bereziki, honako jokabideak debekatuta daude:
 - a) Espazio pribatuen nahiz fatxaden, sarreren eta, oro har, higiezinak dituen eta bide publikotik

ikusten diren arkitektura elementuen garbiketa eta mantenua ez egitea.

- b) Eraikin hondatuak 2. atalean adierazten den moduan ez ixtea edo hesitzea.
- c) Alarma sistema alarma-zentral batekin ez konektatzea edota Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak zehaztutako protokoloa ez errespetatzea.
- d) Bizilagunei eragozpenak eragin diezazkieketen lanak edo konponketak egitea 21:00etatik 8:00etara. Igande eta jaiegunetan debekatuta daude obrak.
- e) Fatxadetatik aurrera ateratzen diren loreontziak, jardinerak etab. jartzea, eraikineko elementuek behar bezala eusten ez badiete eta bide publikoko oinezkoei zein ondasunei arriskua eragiten badiete.
- f) Loreontzietatik edo landareen bitartez bide publikora isurketak egitea.
- g) Bide publikora edo jendea joan- etorriari ibiltzen den barne-patioetara ematen duen balkoi, begiratoi edo leihoetatik alfonbrak, erratzak edo zapiak astintzea
- h) Landa eremua 6.atalean adierazitako moduan ez mantentzea.

Araudi honen VII. Kapituluari xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako atal honetan aurreikusitako ekintza bakoitza arau-hauste arintzat hartuko da.

Egin beharreko garbiketak edo 2. Zenbakian jasotzen diren itxierak inplikaturako jabe edota titularrek egiten ez badituzte, udal zerbitzuek egingo dituzte, baina gastuak haiek ordainduko dituzte.

11. artikulua.-Zarata.

Zarata arautzen duen araudi aplikagarriak jasotzen dituen betebeharrak eta debekuak kaltetu gabe, honako ekintzak debekatuta daude:

- a) Ibilgailuen martxak behartzea, behar ez diren azelerazioen ondorioz zarata gogaikarriak sortuz.
- b) Herrigunean hotsak edo beste edozein seinale akustiko erabiltzea, harrapatzeko edo talka egiteko berehalako arriskua dagoenean edo larrialdiko zerbitzu publikoak edo pribatuak direnean izan ezik.
- c) Horretarako berariaz kartel bidez seinaleztatutako espazioetan, kartel horietan ezarritako ordutegian baloiarekin jolastea.
- d) Idatzizko udal-baimenik gabe eremu publikoan megafonia (kable bidezkoa ala eramangarria) erabiltzea.
- e) Telebistek, irratiak, altzarien mugimenduek jokoek, kantuek oihuek, borrokek, animalien zaratek eta abarrek eragindako asaldura.

Araudi honen VII. Kapituluari xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintza bakoitza arau-hauste arintzat hartuko da.

12. artikulua.-Animaliak.

Animalien eskubideak eta ongizatea babesten duen araudi aplikagarriak jasotzen dituen betebeharrak eta debekuak kaltetu gabe, honako ekintzak debekatuta daude:

- a) Animaliei bide publikoko gizakien kontsumorako iturrietatik zuzenean edaten uztea.
- b) Animaliei kalean jatekorik ematea
- c) Animaliak jipoitzea eta ankerki tratatzea.
- d) Txakurrak bide publikoan lotu gabe eramatea. Gainera, txakurra potentzialki arriskutsu bezala sailkatua badago daraman pertsonak beti izan beharko du eskura udal baimena, bai txakurra berarena, bai txakurra paseatzekoa. Halaber, muturrekoa jarrita eraman behar du uneoro.
- e) Bide publikoetan, jolas parkeetan, soropil, lorategietan eta, oro har, apaingarrirako edo jendearen joan-etorriarako den beste edozein lekutan gorotzak uztea eta txiza egiten dutenean urarekin ez garbitzea.
- f) Patio, terraza, galeria, merkataritza lokal, garaje, balkoi edo beste espazio itxi edo irekietan beren soinu, oihu edo kantuekin, edo beren eginkari fisiologikoak egiten dituztelako auzokoei traba egin edo auzokoak gogaitu ditzaketan animaliarik uztea.

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintzen artean, a, b, d, e, eta f hizkietan jaso direnak arau-hauste arintzat hartuko dira. C hizkian jaso den ekintza berriz, arau-hauste larritzat hartuko da.

V KAPITULUA OBRAREN GAUZATZEA

13. artikulua.- Neurriak hartzea.

1. Egiten diren jarduerak eta obra guztiak, bide publikoa zikindu ez dadin, beharreko neurriak hartzea behartzen dute titularra, derrigorrezko lizentzietatik datozen baldintzak betetzeaz gain. Era berean, obra horrek ukituriko eremua behar adina aldiz garbitzeko eta sorturiko hondar materialak erretiratzeko obligazioa izango du titularrak.
2. Udalak garbiketa lanak egiteko eskatu ahal izango dio obraren arduradunari.
3. Eraikitze, berritze edo eraiste lanak direnean, obra lizentziaren titularra izango da obra horiek ukituriko bide publikoaren garbiketaren erantzulea.
4. Zura ateratzeko obrak egiteko edota bide publikoetarik ibilgailu astunak igarotzea ekarriko duen beste edozein jarduerak egiteko, Udalak behar adinako abala ezarri ahal izango du, bidea jardueren aurreko egoerara ekarriko dela ziurtatzeko.

14. artikulua.- Obraren babesa

1. Zikinkeriarik ez biltzeko, bide publikoa ukitzen duten edo uki dezaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak obra hori babestu egin beharko dute inguruan elementu egokiak jarrita, obrako lurak eta soberako materialak baimendutako eremutik edo obra mugatzen duen perimetrotik kanpora isuri eta zabaldu ez daitezela.
2. Debehatuta dago obraren perimetroaren barnean ez dagoen bide publikoan lurak, hondarrak, legarrak eta gainerako materialak uztea, eta baita eusteko eta induskatzeko elementu mekanikoak eta gainerako tresna lagungarriak pilatzea ere, dagokion obra lizentzian udalaren baimen espresa jasotzen ez bada; eta espazio hori beti garbi edukiko da.
3. Lanegun bakoitza bukatzen denean bide publikoan egindako lan eremuak, lubakiak, kanalizazioak eta abar, garbi eta babestuak utziko dira eta jarri beharreko seinaleak jarriko zaizkie istripurik gerta ez dadin, gauerako balizaje elementuak bane.

15. artikulua.- Garbiketa plataforma

1. Obraren eremuan bertan, bide publikora atera aurretik, ibilgailuen gurruplak eta galtzada zikin dezaketen gainerako elementuak garbitu beharko dira.
2. Prebentzio hori betetzen ez bada, dagokion zigorra jartzeaz gain, obrako ibilgailu horiei bide publikora ateratzea debekatu egingo die Udaltzaingoa.

16. artikulua. - Masaderak

1. Debehatuta dago masadera- ibilgailuan hormigoia garraiatzea, hormigoia hori bide publikora ez isurtzeko, beharreko gailuaren bidez deskarga-ahoa ixten ez bazaio.
2. Debehatuta dago masaderak bide publikoan eta horretarako egokia ez den beste edozein lekutan garbitzea.
3. Aurreko bi atal horiek betetzen ez badira, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzuleak, eta erantzule subsidiarioa, berriz, obraren sustatzailea edo zerbitzua ematen dioten jardueraren titularra. Isurtzen den hormigoia eta ukituriko bide publikoa garbitzeko obligazioa dute. Horrez gain, hala balegokio, 19. artikuluan

aurreikusitako zigorrak jarriko zaizkie.

17. artikulua.- Obra edukiontzia

1. Debehatuta dago obrako hondakin-materialak edo obra-hondakinak bide publikoan uztea edo botatzea, bai eta hiri-hondakin solidoak edukiontziren batean uztea ere.
2. Obrako hondakinak eta gainerako hondakin-materiala edukiontzietan utziko dira, Udalak baimendutako obretarako, hala badagokio.
3. Behin beteta, obretarako edukiontzia behar bezala estali beharko dira, hondakin-materialak kanpora ez isurtzeko moduan.
Era berean, derrigorrezkoa da lan-ordutegia amaitzean edukiontzia estaltzea.

18. artikulua.- Lurren eta obra-hondakinaren garraioa.

1. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzeko ibilgailuek beharreko baldintzak beteko dituzte, bide publikora isurketarik egin ez dezaten.
2. Istripu, iraulketa edo beste edozein gorabeheraren ondorioz karga bide publikora erori edo isurtzen bada, eta bideko segurtasunari begira arriskuak sor baditzake, gidariek ahalik eta azkarren eman beharko diote horren berri Udaltzaingoiari, eta, horrekin batera, eroritakoa bildu eta arrisku eremutik kanpo eramaten hasiko dira, garbiketa zerbitzuek eman diezaieketen laguntzaren zain. Nolanahi ere, gorabehera horiek sortutako gastuak ibilgailuen jabeek edo gidariek ordainduko dituzte.
3. Lurrak eta obra-hondakinak garraiatzen dituztenek, ukituriko bide zatia berehala garbitzeko obligazioa dute, karga, deskarga eta garraio lanen ondorioz bide publikoa zikintzen bada. Era berean, edozein unetan kendu behar dituzte, eta Udal Agintariek eskatzen duten guztietan, baimendu gabeko lekuetan isuritako lurrak eta obra-hondakinak.
Horrez gain, hala balegokio, 19. artikuluan aurreikusitako zigorrak jarriko zaizkie.

19. artikulua

Obrek bide publikoan duten eragina ahalik eta txikiena izan dadin, bereziki honako ekintzak debehatuta daude:

1. Egiten diren jarduera eta obren ondorioz obrek ukitutako eremua, eta orokorrean, bide publikoa zikindu ondoren ez garbitzea.
2. Egiten diren jarduera eta obren ondorioz obrek ukitutako eremua, dagokion moduan ez babestea, bereziki lanegun bakoitzaren bukaeran, dagokion seinalizazioa barne.
3. Obraren perimetrotik kanpo obrako materialak nahiz tresnak uztea.
4. Masaderak bide publikoan garbitzea.
5. Obrako hondakinak bide publikoan edo hiri-hondakin solidoen edukiontzietan botatzea.

Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintzen artean, 1, 2, 3, eta zenbakietan jaso direnak arau-hauste arintzat hartuko dira. 5. zenbakian jaso den ekintza berriz, arau-hauste larritzat hartuko da.

V KAPITULUA BIDE PUBLIKOAREN OKUPAZIOA

20. artikulua.- Irizpide orokorra.

1. Debehatuta dago kontsumorako produktuen banaketa zuzenean bide publikora egiten duten makina banatzaileak udalaren baimenik gabe jartzea.
2. Debehatuta dago bide publikoa erakustegi edo beste edozein objektu motarekin okupatzea dagokion baimenik gabe.
3. Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintzak arau-hauste larritzat hartuko dira.

21. artikulua.- Kanpatzeak.

1. Lezoko udalerrri osoan ezin izango da kanpatu, ezta kanpin dendak edota antzekorik jarri ere. Era berean, ezin izango da bide publikoan janaria prestatu ezta, ekar dezakeen arriskuagatik, Udalak berak egokitutako guneetatik kanpo, surik edo barbakoarik egin ere. Salbuespena egingo da aurretik eskatutako eta udalak baimendutako ekitaldietan.
2. Udaltzaingoko agenteek bide publikoa okupatzen duten kanpin dendan, edo beste edozein eratako materialen jabe edo erabiltzaileei jokabide hori aldatzeko eskatuko diete, eta dagokien salaketa ere egin diezaiekete. Ezezkoa emanaz gero, edo jabeak edo erabiltzaileak aurkitu ezin badira, Agintaritzaren Agenteek beharreko bideak erabili ahal izango dituzte elementu horiek berehala erretiratzeko, eta sortutako gastuak jabeek ordainduko dituzte.
3. Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintzak nahiz ez betetzeak arau-hauste arintzat hartuko dira.

22. artikulua.- Baimenik gabeko okupazioa

1. Eraikinen, orubeen, merkataritza lokalen eta bestelako eraikitze, berritze edo hobetze lanak egiten dituztenek ezingo dute bide publikoa okupatu, ezta aldi baterako bada ere, aurretik ez badute udal baimenik edo derrigorrezko lizentziarik lortu.
2. Araudi honen VII. Kapituluaren xedatzen den zigor erregimenaren ondorioetarako artikulua honetan aurreikusitako ekintzak arau-hauste larritzat hartuko dira.

VII KAPITULUA ZIGOR ERREGIMENA

23. artikulua.- Arau hausteak.

1. Arau hauste administratiboa izango da Ordenantza honek zehaztutako xedapenak ez betetzea eta bertan zehazten diren debekuak urratzea.
2. Alkateak edo hark aukeratutakoak zigortuko ditu Ordenantza honetan xedaturikoaren arau hausteak. Betiere, legeriak baimentzen dituen mugen barnean eta kasu bakoitzean egon litezkeen erantzukizun zibil eta penalez gain.

24. artikulua.- Arau hauste motak.

Arau hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke, xedapenak berak adierazitako moduan.

25. artikulua.- Isunak.

1. Arau hauste arinei 100 eta 600 euro arteko isuna jarriko zaie eta, edozein gero, horren kostua ordainaraziko da.
2. Arau hauste larriei 601 eta 1.200 euro arteko isuna jarriko zaie eta, edozein elementu urbano aldatu behar izanez gero, horren kostua ordainaraziko da.
3. Arau hauste oso larriei 1.201 eta 2.400 euro arteko isuna jarriko zaie.
4. Isunaren zenbatekoa zehazteko honakoak hartuko dira kontutan: nahita egiten den, zibismo ezaz jokatzeko den, zabarkeria maila, pertsonen osasun eta segurtasunerako arriskua, eragindako kaltearen larritasuna eta arau haustea berriro egitea. Ondorio horietarako, berriro ere arau haustea egin dela ulertuko da arau hausteari aurreko hamabi hilabeteetan behin edo gehiagotan arrazoiz berarengatik isuna jarri bazaio.
5. Jartzen diren isunekin batera, jabari publikoko ondasunetan egindako kalteak, eta eragindako

galerak udal zerbitzuek ebaluatu ondoren, horiei dagokien kostua ere ordainduko da. Kalte eta galera horien zenbatekoa modu betearazlean zehaztuko du isuna jartzeko eskumena duen organoak.

6. Arau haustea egin duenari eskatu ahal izango zaio dena lehen zegoen moduan utz dezala, eta kalte ordainak ordain ditzala, organo eskumendunak zehaztuko dituenak. Kalte ordainik ordaindu behar izanez gero, arau haustea egin duenari jakinarazi behar zaio, ordainketa horretarako ezarritako epean egin dezan, eta egiten ez badu, dagokion epai bidea irekiko da.

26. artikulua.- Erantzuleak.

1. Xedapenak bestelako zehaztapenik egiten ez badu, arau-hausteen erantzuleak arau hausteen egileak izango dira.
2. Adingabeek ordenantzaren aurka egindako jokabideengatik erantzukizuna.
 - a) Arau-hausleak adingabeak direnean, eta haurren edo nerabearen eskubideak, garapena eta prestakuntza babesteko helburuarekin, diruzko zehapenen orde neurri zuzentzaileak ezarri ahal izango dira, hala nola prestakuntza-saioetara joatea, komunitatearentzako lanak edo izaera zibikoko beste edozein jarduera. Neurri horiek arrazoituta hartuko dira, arau-hauste motaren arabera, eta jokabide arau-hausleak jasotzen duen zeha- penaren arabera izango dira. Horretarako, gurasoen edo tutoreen edo zaintzaileen baimena eskatuko da, eta loteslea izango da.
 - b) Era berean, ordenantza honetan berariaz aurreikusten den kasuetan, gurasoek edo tutoreek edo zaintzaileek erantzukizun zuzen eta solidarioa izango dute adingabeek egindako arau-hausteetan.

27. artikulua- Ordainketa murriztua.

1. Ordenantzaren arau-hausteren bat burutu izanagatik ezarritako isunek %50eko murrizketa edukiko dute.
2. Murrizketak aplikatu ahal izateko beharrezkoa izango da zigor- espedientea ireki dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta hurrengo 3 egunetan ordaintzea.
3. Goian esandako murrizketez baliatuz egindako ordainketa egiteak dakar alegazioak egiteari uko egitea, eta prozedurari ebazpen espresaturik egin beharrik gabe amaiera ematea, nahiz eta dagozkion errekurtsoak jarri ahal izango diren.
4. Isuna irimo bihurtzen denetik aurrera, hurrengo hamabost lan egunetan, isunaren kopuru nominala ordaindu ahal izango da.
5. Aurreko atalean ordaintzeko ezarritako epea bukatu eta isuna ordaindu gabe baldin badago, isunaren ordainaraziena premiamendu bidez egingo da, eta dagozkion errekarquak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta handik 15 egunetara jarriko da indarrean.